



## ZUZENBIDE ZIBILA

## KONTRATUAREN INEFIKAZIA ETA BALIOGABEZIA

Irantzu BERLAIN FLORES

**AURKIBIDEA:** I. Baliogabezia eta inefikazia. Kontzeptuaren inguruko zehaztasunak.-II. Kontratuaren inefikazia motak: 1. Deuseztasuna: 1.1. Kontzeptua, kausak eta ezaugarriak.-1.2. Ondorioak.-1.3. Deuseztasun partziala.-1.4. Negozio deuseza indarberritzea eta konbertsioa. 2. Deuseztagarritasuna: 2.1. Kontzeptua, kausak eta ezaugarriak.-2.2. Ondorioak.-2.3. Baliozkotzea. 3. Kontratua hutsaltzea: 3.1. Kontzeptua eta kausak.-3.2. Ezaugarriak eta ondorioak.

## I. Baliogabezia eta inefikazia. Kontzeptuaren inguruko zehaztasunak

Kontratuaren *inefikaziar* buruz hitz egiten dugunean, kontratu horri dagozkion efektuak ez direla sortuko ematen dugu aditzera. Kontratuaren inefikazia azaltzeko, eman daitezkeen kausa ezberdinen sailkapena proposatzen da. Eratzeko irregulartasunean badago efikazia eza horren kausa -zehazki, kontratuak existitzeko beharrezkoak diren funtsezko baldintzak falta direlako edo, hala dagokionean, horiek akastunak direlako-, Doktrinak *baliogabezia* izenez ezagutzen du inefikazia hori, eta KZk 1300.-1314. artikuluetan hura arautzean ezartzen dituen ezaugarrietan oinarrituz, bi *baliogabezia* mota bereizten ditu:

a) *Deuseztasuna*

Kontratuak ez du inolako ondorio juridikorik sortuko, hura **eratzean beharrezkoak diren funtsezko betebeharrak falta direlako edo horiek ez zilegiak direlako, kontratua legez kontrakoa izanik**. Kausa horietan oinarrituz, doktrinaren alderdi batek —batez ere, frantziar doktrinak egindako bereizketaz jabetuz— beharrezkotzat jotzen du *deuseztasuna* eta *existentzia eza* bereiztea. Hortaz, *deuseztasuna* erabiliko du izaera xedaezina duten arauak aurkaratzen dituzten kontratuei erreferentzia egiteko (KZko 6.3 art), eta *existentzia eza*, berriz, funtsezko elementuak betetzen ez diren kasuetarako (KZko 1261. art.). Hala ere, nahiz eta jurisprudentzia-mailan bereizketa horri ere erreferentzia egiten zaion (AGE, 1981eko abenduaren 18koa), kasu batean edo bestean efektu berdinak esleitzen direnez, *deuseztasuna* mantenduko dugu *baliogabezia* eta *inefikazia* kausa moduan, *existentzia eza* kontzeptua baztertuz.

b) *Deuseztagarritasuna*

Kontratuak ondorio juridikoak sortzen ditu, beti ere, **funtsezko baldintzetako akatsak direla-eta** kontratuaren aurka *deuseztagarritasun-akzioa* jartzen ez bada. Hortaz, nahiz eta kontratuaren *baliogabetasuna* eta *inefikazia* deklaratzeko posible izan, aipaturiko akzioa ez balitz ezarriko edo hura ezartzeko iraungitze-epea gaudituko balitz, posible izango litzateke kontratu horren *efikazia* mantentzea, *deuseztasun* kasuetan ez bezala.



*Baliogabeziak* kontratuaren *inefikazia* sortzen duela azpimarratu badugu ere, esan beharra dago *deuseztasuna* eta *deuseztagarritasuna* ez direla kontratuaren *efikazia eza* sortzen duten kausa bakarrak. Izan ere, badaude *inefikazia* kasuak, kontratuaren *baliogabezia* aurrez onartzen ez dutenak. Hala nola, baldintza suntsiarazlea barneratzen duten kontratuak, legeak onartzen dituen ezeztapen-kasuak, edo, besteen artean, *butsaltzea* bera. Kasu horietan guztietan, kontratua modu baliozkoan eratu da —funtsezko baldintzak modu bidezkoan bete dira eta kontratua zilegia da— baina, une zehatz batetik aurrera eta legeak zehazturiko hainbat kausarengatik, ez ditu efektu gehiago sortuko. Arrazoi horregatik, DÍEZ-PICAZOren ustez ez da egokia *inefikaziari* buruz hitz egitea azkeneko kasu horietan, berez, kontratuak efektuak sortu dituelako, nahiz eta une eta baldintza batzuen menpean efikazia hori bukatu egiten den. Autore horren iritziz, kasu horietan *kontratuaren eratorrizko iraungitze* kausa baten aurrean egongo gara, eta hori bereizi egin behar da *inefikazia* kontzeptutik.

## II. Kontratuaren efikazia eza. Motak

### 1. Deuseztasuna

#### a. Kontzeptua, kausak eta ezaugarriak

KZko IV. liburuko, II. tituluaren VI. kapituluak izenburutzat *kontratuen deuseztasuna* izan arren, 1300.-1314. artikuluetan jasotzen diren *baliogabezia* kausek *deuseztagarritasunaren eraentza* ezartzen dute, batik bat. Izan ere, aipaturiko artikuluko horiek oso kasu zehatzetan egiten diote erreferentzia *deuseztasuna* arautzeari, beharrezko bihurtuz eraentza juridikoa doktrinak eta jurisprudentziak zehaztea.

Aurreratu dugunez, kontratuak ez du inolako ondorio juridikorik sortuko, hauetako *deuseztasun-kausaren* bat edo batzuk izaten direnean:

1.- KZko 1255. artikuluan oinarrituz, **kontratua legearen, moralaren edota ordena publikoaren aurka doanean**. Hala ere, arau xedaezinak aurkaratzen dituzten kontratuen kasuan, beharrezkoa da KZko 6.3 artikuluko xedatzen duena kontuan hartzea, kontratuak arau xedaezin bat aurkaratu arren posible bada *deuseztasuna* ez den beste ondorio juridiko bat aldarrikatzea.

Honela dio KZko 6.3 artikuluko: *los actos contrarios a las normas imperativas y a las prohibitivas son nulos de pleno derecho, salvo que en ellas se establezca un efecto distinto para el caso de contravención.*

2.- **KZko 1261. artikuluko funtsezko baldintzak edo kontratu zehatzak galdatzen dituen bestelako funtsezko betebeharririk ez denean.**

3.- Kontratuak **kausa ez zilegia** edukitzea (KZko 1275. art.).



Kontuan hartuz *deuseza* den kontratuak ez duela hasiera-hasieratik efekturik sortuko eta, salbuespenak salbu, ezingo dela baliozkotu, honako hauek azpimarra daitezke deuseztasunaren eraentzaren ezaugarri moduan:

a.- Deuseztasuna emateko **ez da beharrezkoa izango deuseztasun-akzioa ezartzerik (*ipso iure ematen da*)**; hortaz, ezartzen den kasuetan, **epaiak izaera deklaratioa** izango du. Alegia, epaian kontratu horren hasiera-hasierako inefikazia aldarrikatzen da. Hala ere, deuseztasuna ofizioz ezartzea onartzen du jurisprudentziak (besteak beste, 1949ko maiatzaren 27ko edo 1972ko martxoaren 7ko AGEE).

b.- Akzioa ezartzeko legitimazio zabala dago, kontratuaren alderdiek, horien ondorengoek edo *deuseztasuna* aldarrikatzeko interesa duten hirugarrenek ezarri ahal duten heinean.

d.- Azkenik, eta aurreko guztia kontuan hartuz, esan beharra dago *deuseztasun-akzioak* ez duela preskripzio-eperik.

### b. Ondorioak

Deuseztasunaren ondorioak KZko 1303., 1307., 1308. eta 1305.-1306. artikuluetan arautzen dira. Lehenengo hiru artikuluetan, *ex lege* sortzen den itzultzeko obligazioa arautzen da. Azkeneko bi artikuluetan, berriz, itzultzeko obligazioaren salbuespenak jasotzen dira.

KZko 1303. artikulua xedatzen duenez:

*Declarada la nulidad de una obligación, los contratantes deben restituirse recíprocamente las cosas que hubiesen sido materia del contrato, con sus frutos, y el precio con los intereses, salvo lo que se dispone en los artículos siguientes.*

Ikus daitekeenez, *deuseza* den salerosketa-kontratuaren ondorioak jasotzen ditu artikulua, kontratu horren objektu diren gauza eta salneurria **itzultzeko obligazioa** ezarriz. Hala ere, aipatu beharra dago deusezak diren edozein kontratu motatan ezar daitekeela **itzultzeko obligazioa**. Itzultzeko obligazioa *in natura* gauzatu beharko da, alegia, kontratuaren objektu den prestazio bera itzuliz. Hala ere, aurreko hori posible ez den kasuetarako, KZko 1307. artikulua xedatzen duenez:

*Siempre que el obligado por la declaración de nulidad a la devolución de la cosa, no pueda devolverla por haberse perdido, deberá restituir los frutos percibidos y el valor que tenía la cosa cuando se perdió, con los intereses desde la misma fecha.*

Hortaz, itzultzeko aukerarik ez dagoenean gauza galdu delako (KZko 1122.2 art.) edo fede oneko hirugarren batek eskuratu duelako (LHren 34. art.), itzuli beharko da gauzak galtzeko unean edo hirugarrenak eskuratzerakoan zuen balioa gehi, hala dagokionean, fruituak eta interesak.



Bestalde, *obligazio sinalagmatikoei* dagokienez, alderdiek aldiberekotasunez bete beharko dute elkarri itzultzeko duten obligazioa, batak besteari obligazio horren betetzea galdatu nahi badio. Alde horretatik, KZko 1308. artikulua xedatzen duenez:

*Mientras uno de los contratantes no realice la devolución de aquello a que en virtud de la declaración de nulidad esté obligado, no puede el otro ser compelido a cumplir por su parte lo que le incumba.*

KZko 1305. eta 1306. artikuluetan jasotzen diren salbuespenek kontratuaren kausa edo objektu ez-zilegiari egiten diote erreferentzia, eta honako bereizketa hau egiten dute:

a) Kausa edo objektua ez-zilegia izateaz gainera, kontratuak jasotzen duen jarduera delitu edo falta moduan tipifikatuta dagoenean Zigor Kodean, KZko 1305. artikuluari jarraiki:

*cuando la nulidad provenga de ser ilícita la causa u objeto del contrato, si el hecho constituye un delito o falta común a ambos contratantes, carecerán de toda acción entre sí, y se procederá contra ellos, dándose, además, a las cosas o precio que hubiesen sido materia del contrato, la aplicación prevenida en el Código penal respecto a los efectos o instrumentos del delito o falta.*

*Esta disposición es aplicable al caso en que sólo hubiere delito o falta de parte de uno de los contratantes; pero el no culpado podrá reclamar lo que hubiese dado, y no estará obligado a cumplir lo que hubiera prometido.*

Hortaz, delitua edo falta kontratuan alderdi izan direnei egotz badakieke, prestazioaren objektua ez zaie horiei itzuliko, Zigor Kodean jasoko baita delitu edo falta bakoitza arautzerakoan sortzen den ondorioa.

Hala ere, delitua edo falta kontratuaren alderdietako bati soilik egotz badakioke, erruduna ez den alderdiari aukera emango zaio betetakoa itzultzea galdatzeko.

b) Kausa edo objektua ez zilegia izanda, kontratuak jasotzen duen jarduera ez badago delitu edo falta gisa tipifikatuta Zigor Kodean, KZko 1306. artikuluko araua ezarriko da; alegia:

*si el hecho en que consiste la causa torpe no constituyere delito ni falta, se observarán las reglas siguientes:*

*1ª Cuando la culpa esté de parte de ambos contratantes, ninguno de ellos podrá repetir lo que hubiera dado a virtud del contrato, ni reclamar el cumplimiento de lo que el otro hubiera ofrecido.*

*2ª Cuando esté de parte de un solo contratante, no podrá éste repetir lo que hubiese dado a virtud del contrato, ni pedir el cumplimiento de lo que se le hubiere ofrecido. El otro, que fuera extraño a la causa torpe, podrá reclamar lo que hubiera dado, sin obligación de cumplir lo que hubiera ofrecido.*



Kasu horretan ere, itzultzeko obligazioaren salbuespenak egozgarritasuna hartzen du oinarri gisa. Berez, artikulua *causa torpe* adierazpena hartzen du abiapuntutzat — doktrinaren ustez moralaren aurkako prestazioarekin identifikatu behar duguna—, hura egozgarria ez zaion alderdiari itzultzeko obligazioa galdatzeko akzioa aitortzeko. Hortaz, aurreko kasuan bezala, itzultzeko eta betetzeko akzioak baztertuta geratuko dira, deuseztasun-arrazoi hori beste alderdiari edo, hala dagokionean, alderdi biei egotz dakiekeen kasuetan.

### d. Deuseztasun partziala

Ez dago Kode Zibilean deuseztasun partzialari buruzko eraentza berezirik, hainbat artikulutan egiten diren aipamen zehatzak baizik. Zentzu horretan irakur daitezke, besteak beste, KZko 641., 737. edo 1155. artikulua.

Deuseztasun partzialeko kasuetan erabaki beharko da, deuseztasuna dakarren kontratuaren alea baztertuz, kontratuaren efikaziari eutsi dakiokeen ala ez. Auzitegi Gorenaren epai gehienetan agertzen da kontratuaren efikaziaren aldeko jarrera. Halaber, konponbide hori berenganatu dute 7/1998 Legeak, apirilaren 13koak, kontrataziozko baldintza orokorreki buruzkoak, 10. artikuluan, eta azaroaren 16ko LDE 1/2007k, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babeserako Lege Orokorrak, 83. artikuluan.

### e. Negozio deuseza indarberritzea eta konbertsioa

Deuseza den negozioaren konbertsiorako, beharrezkoa izango da kontratu deusezak betetzen dituen funtsezko eta formazko betebeharrak baliozko beste kontratu mota bat eratzeko modukoak izatea. Era horretan, kontratu deuseza kontratu berri horretan bihurtzeko aukera izango da.

Konbertsioa bi motatakoa izan daiteke: *formala* eta *materiala*. Lehenengo kasuan, negozio zehatzak betebeharrak eduki beharrez, mota bereko beste negozio batena hartzen du. Kode Zibileko 715. artikulua jasotzen du konbertsio formala eman daitekeen kasu bat, honako hau xedatzen duenean: *es nulo el testamento cerrado en cuyo otorgamiento no se hayan observado las formalidades establecidas en esta sección; y el Notario que lo autorize será responsable de los daños y perjuicios que sobrevengan, si se probare que la falta procedió de su malicia o de negligencia o ignorancia inexcusables. Será válido, sin embargo, como testamento ologógrafo, si todo él estuviera escrito y firmado por el testador y tubiere las demás condiciones propias de este testamento.*

Konbertsioa materiala izango da, berriz, aurreko gaian azaldu dugun moduan, kontratu deuseza beste kontratu mota bat bihurtzeko aukera dagoenean, beti ere alderdiek borondate hori dutela ezar badaiteke.

## 2. Deuseztagarritasuna

### a. Kontzeptua, kausak eta ezaugarriak



Deuseztagarritasun-eraentzaren bitartez interes zehatzak babestu nahi dira, kontratuaren deuseztasuna eskatzeko legitimazioa interes horien titularretara mugatuz. Zehazki, kontratuaren deuseztasuna eskatu ahal izango du Kode Zibilean jasotzen diren deuseztagarritasun-kausak jasaten dituen kontratuaren alderdiak.

KZko 1301. artikulua irakurketatik ondoriozta daitekeenez, honako hauek dira deuseztagarritasun-kausak:

- a) Kontratua jarduteko gaitasunik ez duen subjektuarekin egiten denean. Hala nola, aukera egongo da adin txikiko emantzipatugabeek edo emantzipatuek (KZko 323. eta 324. artikuluen eremutik kanpo) epai bidez ezgai deklaratu dituzten pertsonak (edota zarrastelek beren kuratoreen asistentziarik gabe) gauzatzen dituzten kontratuak deuseztatzeke. Hala ere, ezgaitasuna ez bada judizialki aitortu eta alderdiak ez badu adimen nahikorik kontratua zer den ulertzeko eta nahi izateko, kontratuaren deuseztasun-kausa baten aurrean egongo gara.
- b) Kontratuzko borondatea izatean, errorea, dolua, indarkeria edo mehatxua gertatzea.
- d) KZko 1322. eta 1301. artikuluetan oinarrituz, bi ezkontideen adostasuna galdatzen duten kontratuak horietako bakarraren adostasunez soilik egiten direnean.

Deuseztasunarekin gertatzen ez den bezala, deuseztagarritasuna ezin daiteke ofizioz deklaratu, beharrezkoa izanik akzioa ezartzea kontratuaren deuseztasuna emateko. Akzio hori ezartzeko legitimazioa duten subjektuak zerrendatzen dira KZko 1301. eta 1302. artikuluetan:

KZko 1301. artikulua:

***La acción de nulidad sólo durará cuatro años.***

*Este tiempo empezará a correr:*

*En los casos de intimidación o violencia, desde el día en que éstas hubiesen cesado.*

*En los de error, o dolo, o falsedad de la causa, desde la consumación del contrato.*

*Cuando la acción se refiera a los contratos celebrados por los menores o incapacitados, desde que salieren de tutela.*

*Si la acción se dirigiese a invalidar actos o contratos realizados por uno de los cónyuges sin consentimiento del otro, cuando este consentimiento fuere necesario, desde el día de la disolución de la sociedad conyugal o del matrimonio, salvo que antes hubiese tenido conocimiento suficiente de dicho acto o contrato.*

KZko 1302. artikulua:

*Pueden ejercitar la acción de nulidad de los contratos los obligados principal o subsidiariamente en virtud de ellos. Las personas capaces no podrán, sin embargo, alegar la incapacidad de aquellos con quienes contrataron; ni los que causaron la intimidación o violencia, o*



*emplearon el dolo o produjeron el error, podrán fundar su acción en estos vicios del contrato.*

Bi artikuluko horietan jasotzen dira deuseztagarritasun-akzioaren legitimazioa eta lau urteko iraungitze-eparearen mugaeguna zehazteko irizpideak. Hortaz, deuseztagarritasun-kausak kontuan hartuz:

- 1.- Jarduteko gaitasunik ez duen adin txikikoari edo ezgaiari, zein haren ordezkari legalei dagokie akzioa ezartzeko legitimazioa. Epeari dagokionez, adin txikikoen eta ezgaituen kasuan, lau urteko epea izango dute jarduteko gaitasuna eskuratzen duten unetik aurrera.
- 2.- Indarkeria edo mehatxua jasan behar izan duen alderdiari dagokio, horiek bukatzen direnetik zenbatzen hasi eta lau urteko epean, deuseztagarritasuna galdatzeko legitimazioa.
- 3.- Errorea edo dolua eman denean, berriz, hura jasan duen pertsonari dagokio legitimazioa; baina kontratua eratu zen unetik hasiko da zenbatzen lau urteko iraungitze-epea.
- 4.- Azkenik, kontratua eratzeke adostasunik eman ez duen ezkontideak kontratu horren berri duenetik edo, hala dagokionean, irabazpidezko sozietatea edo ezkontza iraungitzen denetik, lau urteko epea izango du kontratuaren deuseztasuna galdatzeko.

Era berean, ezinbestekoa da KZko 1314. artikulua xedatzen duena kontuan hartzea; artikuluko horren arabera: *también se extinguirá la acción de nulidad de los contratos cuando la cosa, objeto de éstos, se hubiere perdido por dolo o culpa del que pudiera ejercitar aquélla.*

*Si la causa de la acción fuere la incapacidad de alguno de los contratantes, la pérdida de la cosa no será obstáculo para que la acción prevalezca, a menos que hubiese ocurrido por dolo o culpa del reclamante después de haber adquirido la capacidad.*

Akzioa iraungita geratuko da kontratuaren objektua modu egozgarrian galtzen denean (*culpa* edo *dolua*); salbuespen bakarra izango da: ezgaiak jarduteko gaitasuna eskuratu baino lehen gertatzea galera.

## b. Ondorioak

Deuseztagarritasun-akzioa ezartzen denetik kontratua deuseza izango da; ondorioz, ez du inolako efekturik sortuko. Hala ere, kontuan hartu behar da akzioa ezartzen ez den bitartean kontratu horrek efektuak sortzen dituela; eta, are gehiago, akzioa ezarriko ez balitz edo, geroago ikusiko dugun moduan, kontratua baliozkotuko balitz, kontratu horrek bere efikazia mantenduko duela, nahiz eta bere eraketan aipaturiko akatsak edo bestelako inguruabarrak izan. Haatik, deuseztasun-kasuetan kontratuaren inefikazia epai bidez deklaratzeko beharrezkoa ez bazen deuseztasunaren efektuak emateko, ezinbestekoak izango dira akzioa eta epaia kasu honetan, edo judizioz kanpoko eskaera, adostasun-kasuetan. Hori bai, behin kontratuaren deuseztasuna eskatuta eta deklarata edo onartuta, efektuak berdinak izango dira. Aurreko iritzi hau kontrajarriz, LACRUZ BERDEJO eta



DELGADO ECHEVARRIA autoreek defendatzen duten moduan, deuseztagarria den kontratua, berez, ez da baliozkoa. Behin behineko izaeraz efektuak sortzen baditu ere, bere eraketa prozesuan emandako akatsak edo deuseztagarritasun kausen existentzia dela eta, kontratua ezin daiteke baliozkotzat hartu. Kausa hori jasan duen alderdiari dagokio, ordea, itzultzeko akzioa egikaritzea Kzko 1301. artikulua ezartzen duen lau urteko epean. Hau horrela izanda, azken honen egikaritzea ezak zuzenean baldintzatuko luke kontratu horren deuseztasuna deklaratzeko aukera.

Era horretan, aurretik aipatu ditugun KZko 1303., 1307. eta 1308. artikulua ezar daitezke. Eta, Kode Zibileko 1305. eta 1306. artikulua ezargarriak ez izan arren, deuseztagarritasunaren eraentzak badu itzultzeko obligazioari ezartzen zaion salbuespena ere. Zehazki, Kode Zibileko 1304. artikulua xedatzen duenez:

*cuando la nulidad proceda de la incapacidad de uno de los contratantes, no está obligado el incapaz a restituir sino en cuanto se enriqueció con la cosa o precio que recibiera.*

Kasu horretan, ezgaituak berak betetako prestazioa itzultzea galdatu ahal izateko, atzera eman beharko du berak jasandakoa edo horren ordeztutakoa, beti ere, irabazia lortu duela zehaztuta geratzen den kasuetan. Arau horrek adin txikikoak eta ezgaituak babestea du helburu; hain zuzen ere, haiek kontratatuz abantaila lortu nahi duten subjektuak zigortu nahi ditu.

### d. Baliozkotzea

Deuseztagarritasuna eskatzeko, legitimatuari kontratua baliozkotzeko aukera ematen zaio, Kode Zibileko 1309. artikulua adierazten duen moduan:

*la acción de nulidad queda extinguida desde el momento en que el contrato haya sido confirmado válidamente.*

Baliozkotzea KZko 1261. artikuluan aipatzen diren funtsezko betebeharrak betetzen dituzten kontratuetan soilik gerta daiteke; alegia, deuseztagarriak direnetan eta ez, aldiz, deusezak diren negozio juridikoetan (KZko 1310. art.).

KZko 1311. artikulua araberak, baliozkotzea bi modutan egin daiteke:

- a. *Esanbidez*: Kasu honetan deuseztagarritasuna eskatzeko ahalmena duen alderdiak kontratua baliozkotu nahi duela adierazten du, beste alderdiari nahi hori jakinarazi ez arren (KZko 1312. art.).
- b. *Isilbidez*: Alderdiak deuseztagarritasuna galdatzeko aukera galtzen du, ahalmen horri uko egitera daraman egintza gauzatzen duenean.





Kontratua baliozkotzean, deuseztagarritasuna galdatzeko akzioa iraungi egingo da, eta kontratuak efikazia izango du behin betikoz eta eratu zenetik (KZko 1309. eta 1313. artikulua).

### 3. Kontratua hutsaltzea

#### a. Kontzeptua, ezaugarriak eta kausak

KZko 1290.-1299. artikuluetan *hutsaltzeari* ematen zaion eraentza kontuan hartuz, esan daiteke **kontratuak hirugarrenei sortzen dizkien ondarezko kalteak konpontzea duela** helburu. Horretarako, eta **beste irtenbiderik ez dagoen kasuetan, baliozko kontratuaren inefikazia deklaratu da** (KZko 1290. eta 1294. artikulua).

KZko 1290. artikulua: *los contratos válidamente celebrados pueden rescindirse en los casos establecidos por la ley.*

KZko 1294. artikulua: *la acción de rescisión es subsidiaria; no podrá ejercitarse sino cuando el perjudicado carezca de todo otro recurso legal para obtener la reparación del perjuicio.*

Kode Zibileko 1291. eta 1292. artikuluetan, hutsaltze-kausak zerrendatzen dira:

KZko 1291. artikulua:

*Son rescindibles:*

*1º Los contratos que pudieren celebrar los tutores sin autorización judicial, siempre que las personas a quienes representan hayan sufrido lesión en más de la cuarta parte del valor de las cosas que hubieren sido objeto de aquellos.*

*2º Los celebrados en representación de los ausentes, siempre que estos hayan sufrido la lesión a que se refiere el artículo anterior.*

*3º Los celebrados en fraude de acreedores, cuando estos no puedan de otro modo cobrar lo que se les deba.*

*4º Los contratos que se refieran a cosas litigiosas, cuando hubiesen sido celebrados por el demandado sin conocimiento y aprobación de las partes litigantes o de la Autoridad judicial competente.*

*5º Cualesquiera otros en que especialmente lo determine la ley.*

KZko 1292. artikulua:

*Son también rescindibles los pagos hechos en estado de insolvencia por cuenta de obligaciones a cuyo cumplimiento no podía ser compelido el deudor al tiempo de hacerlos.*

Lehenengo eta bigarren kausak ondarezko oinarria dute, eta KZko 1293. artikulua xedatzen duenez, *ningún contrato se rescindirá por lesión, fuera de los casos mencionados en los números 1º y 2º del artículo 1291*. Hala ere, esan beharra dago azken adierazpen hori ez dela erabat zuzena, ondarezko kalte horretan oinarrituz, Kode Zibilak beste negozio juridiko batzuen



*hutsaltzea* eskatzeko aukera aurreikusten baitu; hala nola, 1074. art., 406. art., 1410. art., edo 1708. art.

Bestalde, bigarren kausa horri dagokionez, KZko 1296. artikulua ezartzen du ezingo dela absentearen ordezkariak gauzaturiko kontratua *hutsaltzerik* eskatu, kontratua baimen judiziala edukiz egin bada.

Hirugarren kausak hartzekodunen maulan egindako kontratuei egiten die erreferentzia. Zehazki, KZko 1297. artikulua ezartzen du zein kasutan uler daitekeen kontratu bat hartzekodunen maulan egin den. Alde horretatik, aipatutako azken artikulua horretan xedatzen denez:

*Se presumen celebrados en fraude de acreedores todos aquellos contratos por virtud de los cuales el deudor enajenare bienes a título gratuito.*

*También se presumen fraudulentas las enajenaciones a título oneroso, hechas por aquellas personas contra las cuales se hubiese pronunciado antes sentencia condenatoria en cualquier instancia o expedido mandamiento de embargo de bienes.*

Halaber, gogoratu beharra dago zordunak hartzekodunaren maulan egindako kontratuen hutsaltzea eskatzeko ahalmen horretan garatzen dela KZko 1111. artikuluan aurreikusten den *akzio pauliarra* delakoa.

Azkenik, KZko 1299. artikulua xedatzen duenez, *hutsaltzea* eskatzeko akzioak lau urteko *iraungitze*-epea dauka. Tutoretzapean dauden pertsonentzat eta absentzia-egoeran dagoenarentzat, hala ere, ez da hasiko epea zenbatzen tutoretzatik irten arte edo absentzian zegoenaren bizitokia ezagutu arte. Kaltetuaren eta haren oinordekoen esku geratzen da legitimazio aktiboa. Legitimazio pasiboa, aldiz, ondarezko kaltea sortu duenari, zordunari eta fede txarreko eskuratzailerari dagokio (KZko 1295.II artikulua kontrako irakurketa eginez).

## b. Efektuak

KZko 1295. eta 1298. artikuluetan ezartzen dira kontratuaren *hutsaltzearen* efektuak. Berez, gauza —fruitu eta interesekin— itzultzeko obligazioa egongo da, beti ere, kontraprestazio moduan jasotakoa itzultzeko aukerarik baldin badago. Hala ere, gauza fede oneko eskuratzailerak badauka, edo fede txarreko eskuratzailerak ezingo balu hura itzuli, sortutako kalte-galerak ordaintzeko betebeharra ezartzen da.

KZko 1295. artikulua:

*La rescisión obliga a la devolución de las cosas que fueron objeto del contrato con sus frutos, y del precio con sus intereses; en consecuencia, sólo podrá llevarse a efecto cuando el que la haya pretendido pueda devolver aquello que por su parte estuviere obligado.*

*Tampoco tendrá lugar la rescisión cuando las cosas, objeto del contrato, se hallaren legalmente en poder de terceras personas que no hubiesen procedido de mala fe.*





*En ese caso podrá reclamarse la indemnización de perjuicios al causante de la lesión.*

KZko 1298. artikulua:

*El que hubiese adquirido de mala fe las cosas enajenadas en fraude de acreedores, deberá indemnizar a estos de los daños y perjuicios que la enajenación les hubiese ocasionado, siempre que por cualquier causa le fuere imposible devolverlas.*

## **BIBLIOGRAFIA**

- DE CASTRO Y BRAVO, F.: *El negocio jurídico*, Madril, 1967.
- DÍEZ PICAZO, L., GULLÓN, A.: *Sistema de Derecho Civil*, II. liburukia, *El contrato en general. La relación obligatoria. Contratos en especial. Cuasi contratos. Enriquecimiento sin causa. Responsabilidad extracontractual*, Madril, 2003.
- LACRUZ BERDEJO, J.L., SANCHO REBULLIDA, F.A., *et alii*: *Elementos de Derecho civil*, II. liburukia, *Derecho de obligaciones. Parte General. Teoría general del contrato*, Madril, 2003.



# ESKEMAK

## KONTRATUAREN INEFIKAZIA ETA BALIOGABEZIA

### KONTRATUZKO EFIKAZIA EZA. KONTZEPTUAK ZEHAZTEN

Efikazia eza eta baliogabezia bi plano ezberdinetan murgiltzen dira:

**1. Efikazia eza eraginkorra da kontratuak sortzen dituen efektuen eremuan.** Hala nola:

- (1) Balioko den salerosketa kontratua, baina jabetza eskubidearen transmisioa ez dakarrena: KZ 464. art, KZ 1474. art, KZ 1955. art edo HL 34. art.
- (2) Suntsiarazpena: KZ 1124. art.
- (3) Errebokazioa: KZ 644-656 artk.
- (4) Hutsaltzea: KZ 1291-1299 artk.

**2. Balio-gabezia, ordea, kontratuaren eraketa prozesuan kokatzen da**

Kontratuaren oinarritzko baldintzak betetzen ez direlako, akastunak direlako edo, orobat, KZ 6. 3. artikuluan oinarrituz, xedaezina den legea aurkaratzen duelako Kode zibilean bi baliogabezi mota bereizten dira: deuseztasuna eta deuseztagarritasuna



## EFIKAZIA EZA. MOTAK

1.  
DEUSEZTASUNA

- Kausak**
- (1) Kontratuaren funtsezko baldintzen falta (KZ 1261. art: existentzia eza, ez-zilegia edota zehaztugabea)
  - (2) KZ 1255 eta 6.3 artk. Hala ere, deuseztasuna ez da beti ezargarria den efektua
- Funtsezko ezaugarriak**
- (1) Ez da beharrezkoa epai judiziala, *ipso iure*
  - (2) Legitimazio aktibo zabala
  - (3) Akzioaren preskripzio edo iraungitze-epe eza
  - (4) Behin betikoa da

2.  
DEUSEZTA-  
GARRITASUNA

- Kausak**
- (1) KZ 1300 art.: kontratuaren funtsezko ezaugarri akastunak
  - (2) KZ 1301 art.: adin txikiekin edo ez gaiekin ospaturiko kontratuak. Era berean, ezkontide baten adostasunik gabe buruturiko kontratuak
- Funtsezko ezaugarriak**
- (1) Doktrina mailako eztabaida.
- Bi iritzi: (a) batetik, kontratua baliozko da, baina efikaziarik gabe geratu daiteke (aurkatuz gero); (b) bestetik, kontratua ez da baliozkoa, behin behineko efektuak sortu arren.
- Iritzi bat edo bestea jarraitzeak, berezko garrantzia izango du honako inguruabarretan: akzioaren izaera (aitortzailea edo aurkaratze akzioa) edota KZ 1301. artikulua jasotzen duen epea deuseztasuna eratzeko edo itzultze-obligazioa egikaritzeko den erabakitzeko orduan
- (2) Legitimazioa zehaztua: KZ 1302. art. Deuseztagarritasun kausa jasaten dituen kontratuaren alderdiak
- (3) Epea, KZ 1301. art.: lau urte, zenbatzen hasiko direnak kausen arabera.



## DEUSEZTASUNAREN ETA DEUSEZTAGARRITASUNAREN EFEKTU AMANKOMUNAK

**Itzultzeko KZ 1303.art.**

**obligazioa** Prestazioa itzultzea (obligazio arruntak eta elkarrekiko obligazioak, Kz 1308. art, aldiberekotasuna)

**KZ 1307. art.**

Gauza galdu bada edo hirugarren baten eskutan dagoenean:

(1) Gauza galdu bada eta itzultzeko obligazioa duenak fede txarrez jokatu badu, bere gain hartzen ditu egozgarriak ez diren galerak. Kasu hauetan itzuli beharko ditu gauzak, galtzeko unean, zuen balioa, fruituak eta, bere kasuan, geroztik emandako interesak. Fede ona badago, bakarrik itzuli beharko du aberastea edo, eskualdatu badu, jasotako prezioa

(2) Gauza hirugarren bati eskualdatu bazaio:

(a) Eskualdaketa aurkaragarria bada, Kz 1303. artikulua

(b) Eskualdaketa aurkaragarria ez bada, akzio erreala

**KZ 1303. art., salbuespenak**

(1) Kz 1304. art: ez gaiekin egindako kontratuak

(2) Kz 1305. art: ez zilegi penalak

(3) Kz 1306. art: ez zilegi zibilak, kausa legea edo moralaren aurkakoa delako

(4) Kz 1314. art: gauzaren galera itzultzeko akzioa egikaritzeko legitimazioa duen alderdiari egozgarria zaionean. Salbuespena: ezgaia den kasuetan

## DEUSEZTAGARRIAK DIREN KONTRATUAK KONBALIDATZEKO AUKERA. KZ 1310-1313 ARTIKULUAK

**KZ 1310. art.** Deuseztagarriak diren kontratuak

**KZ 1312. art.** Legitimazioa

**KZ 1313. art.** Efektuak

<b>3.</b>	<b>Eraentzea</b>	KZ 1291-1299 artk.
<b>HUTSALTZEA</b>	<b>Kausak</b>	Kaltearen ideia: KZ 1291-1293 artk.
	<b>KZ 1294 art.</b>	Izaera subsidiarioa
	<b>KZ 1295 art.</b>	Itzultzeko obligazioa. Baina <i>in integrum</i> itzultzea posible ez den kasuetan, posiblea da hutsaltze akzioa tarteratzea?
	<b>KZ 1297 art.</b>	Hartzekodunen kaltean egindako kontratuen definizioa
	<b>KZ 1298 art.</b>	Hirugarrenaren erantzukizuna
	<b>KZ 1299 art.</b>	Akzioa egikaritzeko epea (4 urte)